

JOLAS SAKONA: TXAPELKETAREN PROZESU ERRITUALA ETA BERTSOLARIAREN ARRAZOI SORTZAILEA XXI. MENDEKO AGORAN

Tesiaren egilea: Jexux Larrañaga Arriola

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Saila: Balioen Filosofia eta Gizarte Antropologia Saila

Tesi-zuzendaria: Joseba Zulaika Irureta

Tesiaren laburpena:

Tesi honen ikerketa-norabidean, txapelketaren paradoxa sakondu nahi izan dugu. Txapelketak gizarteratzen duen joko-eskemaren lehia benetakoa izanik ere, jolasaren eremu sinbolikoan uztartzen duela bere esangura kulturala defendatu dugu, hau da, egiletza kolektiboaren eta izaera kulturalaren ardatzean. Gure tesiaren sakonean zera dago: jokoaren azalaren barrutian, “jolas sakon”aren eremu kulturala baieztatu dugu. Txapelketaren gertaera izan da gure ikergaia eta txapelketaren prozedura errituala interpretazio kulturalaren lurra. Halaber, metafora kulturala larrutzea izan dugu bigarrenengo jomuga, ondo baitakigu ikurraren ekoizpen prozesalak iratzarriko duela metafora. Hain zuzen, komunikazio-prozesu kulturalak, giza taldearen lorratza, izan nahi duenerantz begira jartzen duela baieztatu dugu.

Jokoaren eta jolasaren arteko paradoxan sakontzeko, txapelketaren gertaera marko epistemiko baten baitan kokatu dugu, semiotika kulturalaren iker-lerroan hain zuzen ere. Eremu soziokultural batek ardatzen duen espazio kulturalan, *semiosfera*, geruza inguratzaile ardazgarria dela ikusi dugu, kultura-ekosistema oso bat. Bere baitan *semiosiaren* barne-harremanaren ehun bizigarria aurkitu dugu. Kulturaren espazio adierazgarri hori, arkeologia erritual eta liturgikoa duen kulturaren *espazio estetikoan* esanguratu dugu. Bere baitan *kultura-testua* dago, adierazletasun diskurtsibo, estetiko, erritual eta emozionala baitaratzen duen geruza kolektiboa baillitza. Hortaz, testuinguru oso bat kokatu dugu koordinatu kulturalen baitan. Hain zuzen, ardatz diakronikoan, gizarte-tradizioaren balio trinkoaren mundukera aurkitu dugu; eta, ardatz sinkronikoan, XXI. mendeko Agorak gaur eta hemen betetzen duen funtzio kulturala zola estetikoaren berritasunetik iragarri dugu. Katebegiaren bi muturren artean, mundu erreferentzialaren bilakaera eta aldaketa dago, hau da, gertaera baten “egia” komunitatearen bitartekaritzak berretsi duen datu kulturala da. Izan ere, bere hitza ekoizteko erabakimena duen giza taldea bere harreman-izaera baieztatzen ari da.

XXI. mendeko Agoraren zoladura estetikoaren *eraberrikuntza paradigmak*, “Gu” eraberrituaren balio berrirantz begira jartzen gaitu. Postmoderniaren subjektu bakarzale, individualista, lehiakor eta sobera arrazionalari kontrapuntua eginez,

subjektu errotua, komunitarioa eta sortzailearen giza balio aberatsa kontrajartzen zaio Agoran. Alabaina, bertsolariaren biografiaren balioa herria hitzetan sortzeko ahaltsun metaforizatuari loturik aurkitu baldin badugu, Agorak erakusten digu subjektu berriranzko trantsizioa elkarbizitzaren balio malguagoan erein behar dela. Espazio estetikoaren bizigarritasunak, sakontzeko garaiak bizi duela erakusten digu: muineko nor kolektiboa aurrez aurre begiratzeko garaiak bizi du. Tesiaren burutzapenean, Agoraren kultur jabegoa, *jolas sakonaren* unibertso sinbolikoan esanguratu dugu bete-betean. Agora komunitate ekoizpenaren *sinbolo giltzarria* bihurtzen da, euskal kulturaren unibertso sinbolikoan.